

Oier Arrolaza

DANTZARIA

## Udazkenaren tronoan

**A**rtikulu hau entregatu behar nuen goizean, abenduaren lehenean, iritsi zait Mikel Laboaren heriotzaren abisua. Zirriborratuta neuzkan lerroei azken erreposoa eman eta bidaltzea baino ez zitzaidan geratzen, baina albiste mingarriaren argira hain ergelak gertatzen zitzaizkidan aurretik idatzitakoak, dena ezabatu eta dokumentua zuri-zuri utzita “gorde” klikatu dudala azken orduko damuei atea itxiz.

Abenduaren bigarrenean Mikel Laboaren bitzta, ibilbide, ekarpen, izaera eta bertuteak goratzen dituzten orrialdez beteta argitaratuko ziren egunkariak. Hirugarrenean ere izango zuen oihartzunik, baina gutxiago ziur aski. Lerrook inork irakurri orduko astebete pasako da gutxienez. Gehiegi gaurkotetasuna segundotan neurtzen duen komunikazio erritmorako. Horregatik hain zuzen erabaki dut Mikel Laboa izango dudala hizpide, jentilatasunak ez duelako iraungitze datarik, eta Mikelen musika betiko gurekin izango dugunez, ernaltzen dizkigun sentipenek abendu hasieran zein abendu bukaeran berdin balio dutelako.

“Tradiziotik edan eta tradizioa egin du Laboak” idatzi dut Dantzan posta zerrendara bidali dudana mezuan. “Inor



DANI BLANCO

gutxi bezala uztartu zituen herri tradizioa eta modernitatea” idatzi du Aitor Zuberogoi-tiak Sustatun. Azpimarratzekoa iruditzen zait kanta zaharrak bildu eta bere ahotik berriz zabaltzeko egindako lan horretan bere nortasuna ezkutatu gabe egin zuela Mikel Laboak. Maiz, herri-musikatza aurkeztutakoaren zilegitasuna indartzeko norbanakoa disimulan iragaten ahalegintzen gara. Horrelako tentazioirik ez da antzeman Mikel Laboaren lanean. Umiltasuna nor bere lanaren ardura hartzearekin uztartzen zuen. Mikel Labo lan horretan ikusita Etxahun Iruri datorrit gogora, biak ala biak maisu kanta zaharrak eta sorkuntza berriak baratzte berean ereiten.

Bere kantu-bidean bide-lagun, kantu-gai eta esperimenziorako ongarri izan du herri-musika Mikel Laboak. Kanta zaharrak kanta berri bihurtu dira beren interpretazio pertsonal, ausart eta zintzoan, eta kanta berriak berehalakoan ondu eta errotu dira kanta zaharren ondoan. Doinu xaloena ahots dardartiarekin kantatuz bizkarrezurra hotzikaraz dantzan jartzeko grazia zuen. Kanta zaharrak zein poesia berriak, testu argiak zein ulertezinak, hitzaren eta ahotsaren dantza hezur-mamiraino sartu dizkigu. ■

«

Doinu xaloena ahots dardartiarekin  
kantatuz bizkarrezurra hotzikaraz  
dantzan jartzeko grazia zuen (...);  
hitzaren eta ahotsaren dantza  
hezur-mamiraino sartu dizkigu

»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Jarraituz, Donostiako Groseko Las Vegas kafetegia, Usurbilgo Patri, Aginagako Txokoalde (Zumetatarren etxea), Aieteko Munto, Diputazio ondoko Bidasoa, Antiguoko Etxeberria eta Urruñako Arotzenia eta Xaia. Tabernak denak. 1965etik 2005era arte. Antiguoko eguerdiak ditut gogokoenak, bere Citroena bigarren lerroan aparkatuta munipak zaintzaile, “Mikel mugitu ezazu kotxea” oihua entzun bitartean. Alberto Ormaetxea eta Felix Rincon tarteko. Ez genuen artea aipagai, euskalgintza ere ez. Noizean behin *Zeruko Argiaren* osasunaz galdetuko zidan, harentzat terapiarik ez zeukala jakitun. Inguruak

## Kronologiari

eraginda futbolaz azaletik, erantzunei kasu handirik egin gabe. 1977an izango zen, Batallón Vasco Español indarrean (GALen aurrekoa), jesusenak eta bi egiten Iparraldean eta Arotzeniko Gabrielen deia jaso nuen: “Gizon bat dago ostatuan zutaz galdezka” esan zidan. Hara egin nuen eta leihotik erreparatu, Mikel zen. Gabriele ez ninduela ezagutzen esana zion. Kasualitateak bertaratu banindu legez pasarazi egin zuen gertatutakoa, ohartu ez balitz bezala. Ez zion Gabrieli nor zen esan ordurako artista berezia eta bakarra zenak, izenez ezaguna. Eta kantari legez imitagarria baldin bada ere, sorkuntzan eta gizalegean nekez izango du imitatzailerik. ■